



BEZEROEKIN ERLAZIOA

Honako dokumentu honetan guk gure bezeroekin zer nolako erlazioa edukiko dugun azalduko dugu.

Bezeroekin erlazio ona edukitzeko faktore batzuk bete behar dira;

- Lehenik guk gure zerbitzuak al den hoberen eskaini behar ditugu inpresio ona emateko eta horrela bezeroak erakartzeko.
- Bigarrenik, bezeroekin sare sozialen bitartez erlazionatuko gara nagusiki. Baita, beste modu batzuen bitartez ere. Adibidez, txartelak sortuko genituzke gure logoarekin eta bertan gure kafetegiaren helbidea, mugikor zenbakia eta sare sozialak jarri.

Alde batetik, animalietaz kezkatzen den kafetegi bat bezala ikustea nahi dugu; baita, animaliei laguntzen saiatzen dena adopzioa bultzatuz eta bigarren aukera bat eman.

Beste aldetik, bezeroen erosotasuna eta animalien zorientasuna bilatzen dugu. Gure bezeroek argi eduki behar dute gure helburu nagusia animaliei laguntza eskaintzea dela. Kafetegi berezi bat gara, animaliekin interaktuatzeko aukera eskaintzen eta bezeroen eta animalien arteko oreka bat lortu nahi duena, hau da, bezeroak animalien presentziarekin kafetegia piztu eta alaitu egiten duena.

Gure kafetegiaren kanpoko iritziak oso garrantzitsuak dira, izan ere, zenbat eta iritzi positibo gehiago, gero eta bezero gehiago lortuko ditugu. Iritzi negatiboak funtsezkoak dira gure enpresaren garapenerako, hau da, gure kafetegiak aurrera egin dezan bezeroen iritziak eta zer hobetu dezakegun kontuan hartuko dugu toki eroso bat eraikitzeko. Kafetegi oso arduratsua gara, animaliekin elkar bizitzeko aukera eskaintzen duena.